



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/01/26 Udaletxean 18.30-20.45



### Gaurkoan bildu gara,

- Carlos Gonzalez (Irabazi)
- Eñaut Agirre (Herritarra)
- Adur Ezenarro (Bildu)
- Joseba Garmendia (PSE)
- Jose M<sup>a</sup> Gomez (Herri ekimena)
- Edurne Huesa (Landarlan Ingurumen elkarte)
- Patxi Arrospide (Herritarra)
- Emilia Roman (Herritarra)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Jose Miguel Santamaria (Alkatea)
- Angelica Moreno (EAJ)
- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Iñaki Erauskin (Sasieta)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

### Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren (erabilitako aurkezpena atxikitzen da):

1. **Aurreko aktaren onarpena**
2. **Ordiziako Udalak Mankomunitateari 2016an egin beharreko Udal ekarpena (aurreikuspena)**
3. **Talde lana**
4. **Hurrengo bilera**

### Aktaren onarpena

Alkateak mahai honen helburua kontsulta egitea dela esan du eta hortarako aurretik akordio politiko bat egon dela (talde politiko guztiena) bertan gaur egungo gaikako bilketa mantentzea ere onartu zela.

Bestalde, mahaiari prozesua ereduzkoa izateko gaitasuna eskatzen dio eta bertatik eztabaida politikoa ateratzeko.

Aurreko akta ez da onartzen. Hainbat aldaketa egitea eskatzen da.

LANDARLANek egiten duen eskaera:

- Aktan kontsultarako aurreikusten den data azaltzen da baina bileran hau azaltzeko ez zuen denborarik eman. Data hau kendu egin behar da.
- Landarlan azaltzen den lekuan Landarlan ingurumen elkarte azaldu beharko litzateke.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/01/26 Udaletxean 18.30-20.45



ORDIZIA ORAINek egiten duen eskaera:

- Aktaren arabera bilera kide batzuk aurreko bileran itzulpen sistema eskatu zutela eta honi baiezkoa eman zitzaien, baina soilik eskaera batean geratu zela erantzun dute beste bilera kide batzuk gainera ondorengo hau erantsiz, denbora galtzen ari ginela eta nahikoa zela hori nahastea.

### 2016eko Udal ekarpenaren aurkezpena (aurreikuspena\*)

Udal ekarpenaren aurkezpenean Ssaietako teknikariak Ordiziarri dagozkion Bilketa, Tratamentua eta diru-sarreraren datuak aurkeztu ditu.

\*Izenburuan aurreikuspena jartzen du baina Ssaietako Mankomunitateak onartuta dauka.

1- Ordiziako gastuak eta diru-sarrerak aurkezten dira:

Gastuak:

- Bilketa: 724.000 € ingurukoa
- Beste bilketak (arropak, pilak, olioak, garbiguneak, sentsibilizazio kanpainak, poltsa konpostagarriak, makinak,...): 131.000 € ingurukoa
- Tratamentua: 256.000 €
- Administrazio orokorra: 46.000 €

Diru-sarrerak:

- ECOEMBES: Gestiorako sistema integratua (papera, kartoia, ontzi arinak,...): 153.000 €. Ontzi eta enbalajeen legearengatik. Ecoembes-ek prezio ezberdinak ordaintzen ditu sistemaren arabera:
  - Atez-ateko sistemako bilketa gehiago ordaintzen da.
  - Edukiontzia sistemako bilketa gutxiago ordaintzen du.
- Salmentak: Papera eta kartoia: 38.000 €
- Garbiguneko tasak: 7.000 €
- Beste sarrerak (energia fotoboltaikoa, txatarra salmenta,...): Ordiziako biztanleriaren arabera: 15.000 €

Balantzean defizit bat dago, Udal ekarpena 945.775 €-koa izanik.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/01/26 Udaletxean 18.30-20.45



2- Sarrera eta gastuen balantzean eragile nagusiak hauek dira:

### BILKETA ZERBITZUEN KOSTUA:

"UTE GOIERRI GARBIA"-ek egiten du eta Ordizian honen kostua 724.584 € da.

Ordainketa hau bi kontzeptuen arabera definitzen da:

- Kostu finkoak: Biztanleriaren arabera. 3,7 milio €. Fakturazten denaren %30a.
- Kostu aldakorra: Bilketaren arabera (gasoila, soldatak,...)

Kostu honetatik atez-ateko bilketari dagokiona (bilketan beste zerbitzu batzuk ere sartuta daude: poligonoetako eta merkatuetako bilketak, traste zaharrak,...) Atez-atekoari dagokionez: 6 ekipok lan egiten dute. Kostua: 492.072 €

Bilketaren kostuaren banaketan, atez-atekoaren zatia %68 batekoa da.

Bilketa kostuaren eragina herrika aurkezten da (Mankomunitatean 70.000 biztanle) Herri bakoitzaren bilketa biztanleko kalkulatu da. Taulan gorri daudenak, bilketari dagokionez garestienak dira.

**Bilketa batzbeste: 53 €/biztanleko**

**Ordiziako kasurako: 73,9 €/biztanleko. 21 €/bikt. garestiagoa.**

Ordizia, Legorreta eta Itsasondorekin batera garestiena da eta hau da, duen bilketa sistemarengatik.

### TRATAMENDUAREN KOSTUA

Gipuzkoako hondakinen kudeaketari (GHK) organikoa eta errefusaren tratamenduagatik ordaintzen zaio.

- Errefusa:

Azken urte hauetan prezioa nahiko egonkorra izan da. Aurten %20eko igoera bat izan du, 173,12 €/tona ordaindu behar da.

Grafikan, berdez dauden zutabeetan kontsorzioa eratu gabe zegoen, zabortegian botatzea merkea zen eta gaikako bilketa garestia zen.

Grisez dauden zutabeetan, kontsorzioa eratuta zegoen, gaikako bilketak ingurumen abantailaz gain abantail ekonomikoak ditu.

- Organikoa:

2010ean hasi zen biltzen. Hasieran, kostua altua zen baina gero 4 urteetan bonifikatu egin zen. Aurten %68ko igoera bat izan du, 121,19 €/tona. Gastu guztiak ez ditu estaltzen, oraindik bonifikatuta dago.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/01/26 Udaletxean 18.30-20.45



Ordizian 709 tona errefusa eta 928 tona organiko sortzen dira.

Organikoaren bilketa onena konpostagailura botatzen dena da, ez baita biltzen ez eta tratatzen.

Tratamenduaren eragina herrika aurkeztu da:

**Tratamendua batzbeste: 29,7 €/biztanleko**  
**Ordizian: 24,4 €/biztanleko. 5,3 €/biz. merkeago**

Antzeko tamainako herriekin alderatuz (Beasain, Urretxu, Zumarraga), hiru udalerri hauetan datu eskaxagoak dituzte baina hauetan sistemak optimizatu gabe daude.

Tratamenduak asko eragiten du.

### DIRUSARRERAK

Garrantzitsuenak:

- Papera eta kartoia,
- ECOEMBES:
  - Papera eta kartoia
  - Ontzi arinak

Mankomunitateak miloi bat euro jasotzen ditu dirusarreratan: %17,5a Ordiziar dagozkio.

Dirusarreren eragina herrika:

**Dirusarrerak batzbeste: 15,4 €/biztanleko**  
**Ordiziako kasurako: 19,4 €/biztanleko. 4,0 €/bizt. gehiago lortzen dira**

Antzeko udalerrietan, dirusarrera gutxiago lortzen dituzte baina 2016an sistemak optimizatu egingo dituztenez hauek handitu egingo dira.

Edukiontzi grisa jarri den udalerrietan, ontzi arinen bilketa %40-50 handitu da.

### BALANTZEA

**Gastuak Ordizian: 123 €/biztanleko**  
**Sarrerak Ordizian: 26,5 €/biztanleko**  
**Balantzea: 96,5 €/biztanleko**

Herri haunditan oso sistema ezberdinak edukita, Ordizia garestiagoa da baina besteak ez dira askoz ere merkeagoak, Beasaingoa 5,3 €



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/01/26 Udaletxean 18.30-20.45



merkeagoa da. Baina azken udalerrri hauetan, beraien sistemak optimizatu gabe daude.

Bilketan merketzen dutena, ez dute sarreretatik jasotzen eta asko ordaintzen dute tratamenduarengatik.

Zegaman gaikako bilketa %80-82. Edukiontzi grisa astean behin irekitzen dute. Ordainketa urtean 76 €/biztanleko, batzbestekoa baino gutxiago (85 €/biz).

Sasietako Iñakiri hainbat galdera egin zaizkio.

**BILDU:** Aurreko bileran merkataritzak bilketa berezi bat behar duela komentatu zen eta atez-atekoari dagokion %68ko gastutik merkataritzako bilketara zenbat dagokion galdetu zaio.

**SASIETA:** erantzuna oso zaila da. Kubo bilketa eta bi gurpileko edukiontzien bilketa zenbatu daiteke denbora tarte batean zehar eta gero estimazioak egin.

**BILDU:** Aurreko asteko aurkezpenean atez-ateko sistemaren inguruko moldaketa posibleak ez ziren azaldu.

**SASIETA:** Ordiziarako moldaketa bakarra da posible, organikoa astean 3tan bildu beharrean 2tan biltzea. Beste aldaketak ezin dira Ordizian aplikatu, 2 frakzio ezin dira egun batean bildu eta bilketa ezin da egunez egin. Aldaketa bakar honekin, bilketako prezioa ez da asko aldatzen.

**LANDARLAN:** GHK-ko tarifen inguruan, Zergatik organikoaren bilketan igoera hau? Organikoa bildu ondoren zein da egiten duen bidea?

**SASIETA:** Tarifa hauek GHK-k jartzen ditu. Organikoaren benetako tratamenduak 170€/tona-ko kostua du, oraindik bonifikatuta dago.

GHK-k mankomunitateak duten gaikako bilketaren ratioarengatik bonifikazioak ematen ditu, Sasietari %30eko bonifikazioa ematen diote (bigarren bonifikazio onena) eta gure mankomunitateko udalerrri handietan sistemak optimizatzen direnean ratioak hobetuko direnez, bonifikazio hau ere handitu egingo da.

**BILDU:** Organikoarentzat GHK jarri duen tarifakazioan hobariak mankomunitateari jartzen zaizkio. Hau da, guri %30a tokatzen zaigu, Sasietari, baina Ordiziaren ratioa hobea da, eta herrika begiratu ezkerre %35a beharko genuke. Ondorioz, birziklatze tasa baxuak dituzten herriek mankomunitatearen ratioa jaisten dutenez, hobaria txikiagoa izatea eragiten dute. Horregatik, herri bakoitzak bere kostu errealarri aurre egin behar dion honetan, Sasietak desoreka hori konpentsatzeko mekanismoak jarri beharko lituzkeela, ratio baxuenak dituzten herriak zigortuz eskatzen du.

**SASIETA:** Mankomunitateak berak erabakitzen du bonifikazio hau nola banatu.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/01/26 Udaletxean 18.30-20.45



Organikoaren ibilbideari buruz, organikoa bildu eta Funes-eko plantara ematen da. Konposta han geratzen da, tratamenduko kostuen ordainetan. Gastu bakarra garraioko kostua da. Lapatxeko plantan ezin da biltzen den organiko guztia tratatu.

Epeldeko planta irekitzen denean, Gipuzkoan biltzen den organikoaren erdia tratatuko da. Erabaki beharko da konpost hau nola komertzializatu behar den.

Atez-ate eta edukiontzi bidez biltzen den organikoak kalitate antzekoa du (%3-5 inpropioak) eta kalitatea onekoa da.

GHK-ak errefusa eta organikoaren kantitatearengatik zigortzen du, berdin dio zein bilketa sistema dagoen.

Edukiontzien sistemak aztertuz, optimoena, bilketa gastu txikiena duena, tratamendua jeitsi eta sarrerak igo.

**BILDU:** Kotsultara eman behar den galderak ezin da oinarritu edukiontzi kolektibo eta kubo indibidualen arteko aukeraketa batean soilik, galdera horrek adostutako helburuak betetzea bermatzen ez duten sistemak ere aukeratzat jartzen dituelako. Horregatik, edukiontzi kolektiboak chip-arekin eta dagozkion murrizketekin adierazi behar dira argi eta garbi. Gainera, herritarrari erantzukizuna eman behar zaio eta euren ardurak sistema garestiagoa edo mekeagoa bilakatu dezakeela adierazi.

**LANDARLAN:** Gaikako bilketa %85eko izatea jarri behar da helburutzat, aurreko bileran Sasietak errefusa %15 batekoa dela esan baitzuen.

**EÑAUT:** Atez-atekoa kentzen bada ECOEMBES-ek ordaintzen duena txikiagoa izango da?

**SASIETA:** ECOEMBES-eko ordainketa:

- 450 €/tona atez-ate bilduz
- 300 €/tona edukiontzietan bilduz

Ordiziak orduan, edukiontzien bidezko gaikako bilketa izango balu 50.000 € gutxiago jasoko lituzke ECOEMBES-etik nahiz eta gaikako bilketaren tasa berdina mantendu.

### Talde lana

#### ORDIZIA ORAIN

- Kotsultarako dataren informazioa komunikabideetara zabaldu da eta hau ez dela ondo egin esan da. Alkateak erantzun du gaizki ulertu bat izan zela eta konturatu orduko konpondu egin zela.



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/01/26 Udaletxean 18.30-20.45



- Bileretako aktak Ordiziako web orrian jarri beharko lirateke, honetarako hondakin mahaiaren atal bat sortuz.
- Talde politiko bakoitzetik pertsona bat egongo zela adostu zen politikoki baina EAJ-tik bi pertsona daude. Alkateak erantzun zuen bera Alkate moduan dagoela eta ez EAJ-ko ordezkari bezala.
- Bileretako gai-ordenak mahai honetan landu behar direla esan zuen baina azkenen ingurumen teknikariak gai-orden bat proposatuko duela eta gero denen artean adostuko dela onartu zen.

BILDU

- Hainbat eskaera egin ditu eta batzuek Sasietako aurkezpenarekin erantzutea eskertzen du.

NEKANE: Zergatik kendu nahi da atez-ateko bilketa?

PATXI: Inposatu egin zelako eta kontsultarik ez zelako egin.

BILDU: Erantzun honi ez diot arrazoia kentzen baina beste inposizio asko ditugu gure inguruan eta beraiekin bizi gara. inposaketa izan bazen, edozein erabaki politiko da inposaketa bat, eta zergak edo zirkulazio arauak alde batera utzita, hausnarketa egin beharko litzatekeela hondakinen gaia eta inposaketaren inguruan. Izan ere, hondakinen inguruan, PSOeren Zapateroren gobernua izan zen, Eraikuntzaren Kode Teknikoak dioen moduan "atez-ateko sistema jartzeko", etxebizitza eraikin berri bakoitzean hondakinen gela bat inposatu zuena. Gela hori egiteko gainera, eraikitzaileak etxebizitzak egiteko metro koadroak erabili behar ditu, eta ez dira gela txikiak, biztanleen arebera kalkulatzeko delako azalera. Ea hori inposaketa bat izan ez den galdetu du. Hondakinekin jarraituz, Eusko Jaurlaritzak ere obra eta eraispeneren hondakinak kudeatzeko legea atera zuen Patxi Lopez lehendakari zela, hori ere PSEkoa, eta horren arabera obra bate egin behar duen edonork, obra horrek eragingo dituen hondakinen kudeaketaren kostuaren %120eko bermea jarri beharko du obra hasi baina lehen. Lege hori, gaur egun PNVrena den Eusko Jaurlaritzak eraman du praktikara. Hori inposaketa bat ez den galdetzen du.

BILDU: komunikazio kanpainan esan beharra dago, orduan eta gehiago gaika sailkatuta bildu ingurumen onurak argi daude eta ekonomikoak ondo azaldu behar dira, sistema merkeagoa bilakatzen delako.

NEKANE: Aurreko Udal gobernua asko egin zituen, auzoz-auzo, elkartez elkarte, lehentasuna herria informatzea da.

PATXI: Talde politiko guztiei galdetzen die kontsultako erantzuna binkulantea izango den.

Talde politiko guztiak baiezkoa eman dute. Politikoki adostu dute kontsulta egitea, eta bereizketa orduan eta handiagoa izan behar duela. Honela,



## Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/01/26 Udaletxean 18.30-20.45



edukiontzietako modelo batzuk ez dira planteatu ere egiten Ordiziarako, gaikako bilketa txikiak ematen baitituzte.

ORDIZIA ORAIN: beraien proposamenean emaitza plenez ratifikatuko dela azaltzen da.

ALKATEA: Sasietako bi aurkezpen teknikoen azalpenen ondorioz, gaikako bilketa berdin edo handiago bat lortu daiteke kalitate berdina eta koste txikiagoko edukiontzien bidezko bilketa erabiliz esan dezakegu.

### Hurrengo bilera

Hurrengo saioa otsailaren 2an arratsaldeko 18:00etan izango da Ordiziako Batzar Aretoan.

Bertan, ondorengo gai-ordena lantzea aurreikusten da:

- Kotsultara emango den galdera ministro kontseilutik pasa behar duen ala ez erabakitzea.
- Kotsultaren prozedimendua: erabiliko dugun materiala
  - o Azkoitiako eredia
  - o Donostiako eredia
  - o Plataformako eredia
  - o Ordiziako partehartzeko erreglamentua
- Kotsultara emango den galderaren adostasuna